

1901-ko Agorraren 29-an

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAREN AURREAN

JESUSEN LAGUNDIKO

AITA MIGEL OYARZUN-EK**Meza nagusian egintako****S E R M O Y A****Azpeitiko eleizan**

Quærite ergo primum regnum Dei, et justitiam ejus: et hæc omnia adjicientur vobis. Math. VI, 33.

Diputadu Jaunak, eta gañerako aditzalle Euskaldunak.

Chit guchitan igo naiz toki santu onetara poz andiagoarekin. Eta, ¿zergatik uste dezute? zergatik gure Fueruaren argigarriya dan arbola ikusten nagan fruturik ematen ez duela aspaldicho onetan, egiya da, baña sustraya edo zaña sano daukalarik edo beintzat oso galdu gaberik. Eta sustraya galdu ez duen arbola, ez dago illa, bizi da; eta bera gatik, urte batzuetan fruturik ez eman arren, usterik guchienian eman ditzake lore ederrak, eta oen ondoren baita ere frutu ugari eta osasun garriyak. Eta zierto, gure arbolak emango ditu, nik gaur ikusten dedana, ikusten bada luzaro euskaldunen artean, au da, euskaldun-festa oek segitzen badute urteoro oraiñdaño bezela. Zergatik festa oek dira aditzera ematen dutenak nere iritzian, euskaldunak ez dirala aaztu beren lenagoko izatiaz, beren oitura eta lege zarraz, beren izkuntza eder gozoaz, ez dirala aaztu Aitor-ren semiak dirala. Eta beren lege zar ori galtzia gertatu bazayote oraiñ, beren pekatubak gatik nonbait, beintzat ikusten nago ez duela aldegiñ beren biotzetatik, eta beren biotze-

tatik aldegiten ez duen bitartian, lege zar orren amoriyuaren chingar bat gelditzen dan bitartian euskaldunen biotzetan, or, or ikusten det nik Gernikako arbolak bere suctraya ez daukala oso galduba, eta denboraz berriz ere emango dituala bere frutubak, baldin euskaldunak batiere sayatzen badira zutik idukitzen arbola ori, zergatik sustraya oso galdu eta erorten bada, euskaldun guziok arras galdubak giñakian, Probintzi onetako seme argidotar batek guziz ederki eta egoki kantatu izan zuen bezela iñoizko denboretan

Baña eta ¿zer egiñ aldezateke euskaldunak, esango dirazute, nola ere bait oraindik bizi dan arbola orri frutubak eman eragiteko? ¿Zer falta zayo orretarako? ¿Zer Zeruko intza. Zeruko intza bai, eta esan nai det onekin ze, baldin euskaldunak estimatzen badute eta jarraitzen badie gure aurrekoen zori ona egin zuan Erlijiyuari, bizi nai badute Jaungoikuaren bildur santuba beren biotzetan dutela, oitza eta oitura garbiyen erdiyan beren Asabak bezela; itz batian, lenen lenengo billatu nai badute Zeruetako Erreinua eta bere justiziya, diot ori izango dala gure arbola santubarentzat Zeruko intz gozo bat bezela, frutu ederrak eman eraingo diozkana; eta ona zerk egingo duan nere gaurko sermoyaren gaya. Agertuko dizuet ze, beste gauza guzien aurretik euskaldunak billatu nai badegu Zeruetako Erreinuba eta bere justiziya, ez bakarrik irichiko ditugula, itz oyen ondoren Eskritura Sagraduak diona, baita ere gereganatuko ditugula gure Fueruak, eta loka-beak, eta libertade santubak. Zergatik zori gaiztoan badira euskaldunen artean ere, lenengo mundu onetako gauzak billatu nai dituenak Salbadoriaren esanaren kontra, eta atrebitzen ez diranak erabakitzero Jaungoikuari lenbiziko tokiya ematia gauza guztietan; ez izanik arritzekua beragatik, euskal-erriya arkitzea, arkitzen dan bezela, gure aurrekuak jaikiko balira obitik ezagutuko ez lukian moduban.

Baña goazen ukitu degun asmoa betetzera, eta ikustera orobat euskaldunak guchi geralako ez degula bildurtu bear Jauna serbitzen, eta utzi euskaldunak izatiari, eta ain guchi etorri ardurarik ez artzera euskaldunak izan, edo ez izan.

Probintzia onetako Guartaria edo Patrona zeran Birjiña Konzeziyokua: iñoiz arkitu banaiz zure laguntzaren premiyan, gaur arkitzen naiz, eta indazu arren nere aditzalleen biotz eta animen barru barruraño euskal-espirtuba sartzeko moduban itzegiteko graziya, espirtu onekin giyatubak eta gobernatubak izan ditezen beti, eta ez dedin desagertu euskal-erriya lurraren gañetik munduba munduba dan bi-

tartian; graziya au eskatzen dizugu guztiok benaz eta umilki esanaz Aingerubarekin: *Ave Maria*.

Quærite ergo primum regnum Dei, et justitiam ejus: et hæc omnia adjicientur vobis. Math., VI, 33.

Diputadu Jaunak, eta gañelako aditzalle Euskaldunak:

¿Zertan dago Zeruetako Erreinuba billatzia, edo zer esan nai zaigu esaten zaigunian billa dezagula lenengo zeruetako erreinuba eta bere justiziya? Esan nai zaigu gure lenengo pensamentubak zuzendu biar ditugula betiko bizitzara, sayatu bear degula Jaungoikuaren graziyan egotera bere legia gordiaz, pekatu mortala gorrotatu bear degula eriyotza bera baño geyago. Eta au onela izanik ¿duda dezake inork mundu onetan alai eta ondo bizi izateko sekretua edo artia lenengo zeruetako erreinuba billatzia dala gure aurreko euskaldunak billatu izan zuen bezela? beste munduko gauzaren gañian ez jakiñ aundiyan zeuden Jentill edo Fede gabiak ere ezagutu izan zuen egiya da au. Beren arteko jakintsu eta izkribatzalle askok esana utzi zuen, gauza biarra dala konzienziya ona eta kezka gabekua kontentu bizi izateko. Eta au aditzera ematen digute Sokrates jakintsuaren ejenpluarekin; bada jakintsu au juzgatu eta desarrazoyan iltzera kondenatu zuenian erari pozoitsu bat artubaz, eriyotza begiyen aurrian iduki arren, ikusi zan kalma eta sosegu ederrian chit gozoro itzegiten emengo bizitzaren ondoren espero zuan beste bizitza berri zerukoaren gañean, batere tristura eta bildurrik agertu gabe. Kontrara, Neron ikusi zan iltzen izugarrizko kezka eta bildurrez beterik. Bai, urrez doratutako Jauregiyetan bizi bazan ere, nai zituan atsegiñ guztiyak artzia bere esku zeukalarik, zergatik zan Erromako Enperadoria, itz bat esatia asko zuena mundu guziyak berari obeditzeko; begira nola gabaren isiltasunik aundiye-nian oetik izu-ikaraz alcha, besoak luzatu, eta nola dabillen buruko illeak zuzutik dituala, bere Palaziyoko gela batetik bestera deadarka eta norbaiti iges egin nai bazion bezela. Baña ¿zer izu-ikarak dira Enperadore orren izu-ikarak? Orrenbeste guardia eta seguridaderen erdiyan, ¿zerk bildurtzen du? Badakizute zerk? Konzienziya gaiztoak; konzienzikoz arrak ez dio pakian utzitzen; eta mundu guziya katez loturik idukitzen ikusi zanak, ezer ere ez dezake konzienzikoz kezka kentzeko. ¿Eta oraiñ ez dezue ikusten nola alai bizi izateko, fede gabien artian

ere gauza biarra zan justiziyaz konforme bizi izatia? Baña eta, ¿zer da zer miretsi? Gizonak ziran, eta gizonak ziran ezkerro zeukaten arrazoyaren argiya, eta bera gatik baita ere konzienziya. Eta konzienziya duenari arrazoyaz eta justiziyaz konforme bizi ezpada, konzienziko arrak egiten dio ichimur gaiztoa, eta ematen dio miñ. Orregatik, konzienziko kezka oyen artian pobria bada, ezin aguantatu izaten du bere pobreza, eta aberatsa bada bere aberastasun eta atsegiñak biurtzen zaizka pozoy, edo beneno. Orain ordia, baldin fede gabiaeren artean gauza bearra bazan kontentu bizi izateko konzienziya ona, ¿zenbat geyago bearko ezta kristauben artian arrazoyez gañera fedeko argiya duten ezkerro? Kristauba izan direke aberatsa, ez aberatsa ta ez pobria, eta pobria. Ikusten dira aberatsak beren ondasunak beneno biurtzen zaiztenak, eta baita ere Jaungoikuaren graziyarekin ondo gozaten dituztenak: ikusten ditugu orobat ez aberats eta ez pobriak diranak disgustora bizi diralarik, baita ere guziz aberatsak baño kontentuago bizi diranak: azkenik ikusten ditugu pobriak deabru batzuen antzera aserre eta koleraz beterik bizi diranak, eta aingeru batzuk bezela pozkiro bizi diranak. ¿Zerk kausatzen du diferenziya au? Konzienziyak, ez bestek. Batzuek billatzen due lenengo zeruetako erreinuba eta bizi dira pakian; bestiak billatzen ditute lenengo munduko ondasunak eta atsegiñak, eta beñere ez dira bizi soseguz. Orregatik lenengo zeruetako erreinuba billatzen duena beti dago kontentu, denbora eta okasiyo guztiyak dira onak beretzat; zergatik bere merkaduriya daukan paraje onian, daukan Jaungoikuagan, eta ez daukan bildurrik mundu onetakuak izan oi dituen lanze, edo gora-berarik izango duenik. Zergatik ¿zer estimatzen du onek gauza guztiyen gañetik? Jaungoikuari gustua ematia, bere graziiyan bizi izatia, zerurako merezimentu asko egitia. ¿Eta gauza denboralak ez ditu estimatzen? Bai, baña bigarrenko lekuban, zeruetako erreinuba billatuta gero. Orain daño esanak dira guztientzat; eta orain diot gañera lenengo zeruetako erreinuba billatzia iñori ere etzayola konbeni geyago pobriari baño; eta euskaldunak ez gera aberatsak. Eta ¿zergatik pobriari konbeni zaye geyena? ¿mundu onetako ondasunak ez idukirik, benturaz orrela obeto aseguratuko dituelako zerukuak? Baita orregatik ere, baña ez orregatik bakarrik, baizikan zeruetako erreinuba lenengo billatzia dan biderik segurubena mantenua beti izateko, jana ta jantziya bati beñere ez faltatzeko. Egitya au da Jesu-Kristo gure Jaunak erakusten diguna, ez birenabar, baizikan berariyaz, onetarako arrazoyak emanaz, eta konparaziyorik ederrenarekin argiro ipintzen digula begiyan aurrian.

Etzaitzela ibilli, dio Ebanjeliyuan, ansiya geyegirekin esanaz: ¿Zer jango ote degu, edo nola jantziko ote gera? ¿Zer da obia, biziya ala janariya, korputza ala jantziya? Biziya janariya baño, esango dirazute, eta korputza ere bai, jantziya baño. Eta biziya eta korputza ¿zeñek eman dizkitzute? Zuen Aita zerukuak, ¿ez da ala? Eta biziya eman dizuen Aita zeruko orrek, ez dizue emango biziya konserbatzeko biar dan alimentuba? eta korputza eman dizuenak, ¿ez dizue emango korputz ori estaltzeko jantziya?

Begira aideko egaztiyai, oyek ez dute ereiten, ez dute jorratzen, ez daukate altegi edo ganbara-rik Uztaa gordetzeko. ¿Nork mantentzen ditu? Zuen Aita zerukuak. Eta zuek ¿etzerate geyago baliyo dezuenak, etzerate aideko egaztiyak baño obiaguak? Orobat diot jantziyaz. Begira kanpoko liryuari nola azitzen diran, nola apaintzen eta zuritzen diran. ¿Lanik egiten dute benturaz, iruten dute, eotzen dute? Ez; bada Salomon-ek etzuan jantzi mantu ederragorik bere gloriyarik aundieneko egunetan. Eta, ¿nork jazten ditu orrela? Zuen Aita zerukuak. Eta gaur loraturik, eta biyar surtara bota biar dan kanpoko bellarra orrela jantzi eta apaintzen badu, bere semiak utziko ditu larru gorriyan? Fede guchiko gizonak, etzaitzela kejatu esanaz zer jango ote dezuen, eta jantziko dezuen. Jentillak edo fede gabiak mintzatu ditezela orrela, bada zuek zeruban, daukazute zer bear dezuten ondo dakiyena. Billatu dezazue lenengo zeruetako erreinuba eta bere justiziya: *Quærite primum regnum Dei, et justitiam ejus; et hæc adjiciuntur vobis.* Au da, gañerako gauzak emango zaitzute; ez bakarrik jana eta jantziya, baizikan guk espero biar degu emango dizkigula Jau-nak orobat gure Fueruak, gure aurrekuen gauza on guziyak; itz batian, ain naigarriya dan gure Asaben bizitzeko modu eder Aita-lendarra. Zergatik Jaungoikuak badaki iñork baño obeto, zerk falta egiten digun euskaldun onak izateko eta berari gusto emanaz bizitzeko. Eta egiyaz, zeruetako erreinuba lenengo billatzen ez duana, ¿bizi da benturaz gizona bezela, eta batez ere Kristauba bezela? Ez; baizikan abere eza-guerarik ez duena bezela. Eta au probatzeko ez daukat buruba zer nekatu aundirik. Zergatik ¿zertako gaude mundu onetan? ¿zertako ipiñi ginduzen emen Jaungoiko gure jaunak? Dibertitzeko? Ez. ¿Gure sentidu, griña, eta pasiyuari gusto emateko? Ez. Aberastutzeko? Ez. Gure aunditasuna billatzeko? Ez. ¿Zertako gaude bada mundu onetan? Jaungoikua serbitzeko eta amatzeko, eta au da euskaldunak egiñ bear deguna, nai baditugu irichi gaurkuak baño egun obiak; guchi geralako

bildurtu gaberik. Eta diot guchi geralako bildurtu gaberik, zergatik badira euskaldunak guchi geralako kobardiatu eta pentsatzen duenak laster galduko dala euskera, eta onekiñ batera euskal usaya duen gauza guztiyak, eta bera gatik alperrrik dala enpeñatzia euskaldun marka konserbatzen; zergatik arrai aundiyak chikiyak jan oi dituen bezela, jango gaituela gu ere naziyo batek edo bestek, euskaldun arrazarik geyago gelditzen ez dala lurraren gañian. ¿Eta onela itzegiñ dezateke euskaldunak? Jende arrotzak, euskaldunak ez diranak, orrela mintzatzia ez da zer arritu; zergatik gurekiñ beti orrela izan dira. ¿Baña euskaldunak? Bada begira; oeri lenengo eranzun bear zatena da baldinere ichoon dezatela eserita egun ori ikusi artian; zergatik zutik ichoote-ra ezker oondocho nekatu bearrian izango lirake. ¡A gure euskera ederra! ¡Nola zakazkiten zure seme askok! Baña zer seme dira oriek? Seme azturrituak, seme bortak, ez dute beste izenik merezi beren ama maite ordean, lurperatu nai duenak. Oetako bat orañago azaldu zai-gu, eta gauza tristia da esan bearra baña ez da bakarrik, beintzat guchi edo asko euskera galtzeko moduban dabilzanan artian. Beiñ baño geyagotan aditu izan det nik euskera galtzen badijua, euskaldunak berak ez dituela kulparik guchienak, eta iruditzen zait guztiya ez dala gezurra.

Jauna, zer naidu, esaten ziran neri batek orañdik denbora asko ez dala, aurki sermoi bat ez degu adituko euskeraz; zergatikan Bikariyo Jaunak igandeetan egiten dituen platikaz kanpora, eta oek ere bada erriya erderaz aditzen dituana, gañerako urte barruban egiten diranak, erdiyak baño geyago erderaz egiten dira, edo beintzat lenago euskeraz egiten ziran sermoi asko orañ erderaz egiten dira, eta au ez da modurik onena euskerak irauteko. Eta emendik zer etorri alditeke? Ikusten deguna. Badira euskaldunak, tut ez dakitenak erderaz, edo itz bakoitzian bi astakeri botatzen dituenak, eta ala ere erderaz konfesatzen diranak eta konfesatu nai duenak. Eta beren arteko itzaldiyetan, ez dago ze esanik beti erderaz itzegiñ bear due. Baña zer erdera izan diteke oyen erdera? Zer erdera izango da, erdera mordollua, barka zaidazue itza, ala ere nayago jardun erdera mordolluan, euskera garbiyan baño. ¿Eta onela nai degu euskerak irautia? Urte betian egondu nitzan ni Balenzian, eta chikiyak eta aundiyak, aberatsak eta pobriak, jakintsubak eta ez jakiñak, danak Balenzianoz itzegiten aditu izan nituan beti beren artian. Gu euskaldunak bakarrik gera, geron izkuntza bear ainbat estimatzen ez degunak. Jauna,

esango dirazue, ez da orrenbeste bildur izan bear, zergatik Donostian, Bilbon, eta Iruñian badira gizon izkribatzalliak lan andiyak egiten dituztenak, ez bakarrik euskera galdu ez dediñ, baita ere obetandu dediñ. Egia, eta gusto andiyarekin aitortzen dizuet; eta diot gañera alabantza guztiyak merezi dituen gizonak dirala oyek batez ere euskaldunen partetik, eta Jaungoikuak orretan lagun deyela aurrera ere. Baña zenbatak laguntzen die oeri? edo obeto esateko zenbatak egiten ez die kontra? Zergatik kontra egitia bezela da, oyen lanak ez bear ainbat estimatzia, eta euskeraren alde itzegiten danian, alako oztasun, edo despreziyo moduba agertzia, okasiyorik geyenetan erdera zaliak agertzia. Bai, ta erdera zale asko dago gaur euskaldunen artian; eta izan bitez ordu onian; baña ez dezatela pensatu euskal-izkuntza, izkuntza zatar, moldakaitzen bat dala, eta molderik ez duena Jainkua-ren itza predikatzeke, edo bere legia ondo aditzera emateko. Jakin Dezate, euskerak munduban dan izkuntzarik onenari, batere ez diola zorrik, eta ozta arkituko duela oraiñ itzegiten diran izkuntza guzien artian, euskera baño doai aundiyagokorik, eta gizon jakintsu askok geyago maite duenik. Eta azkenik euskera galtzia konbeni dala aditzera emateko ekarri oi diran arrazoyak, eta bere kontra egiten diran argimentubak, Aita Larramendik, Astarloa jaunak, eta beste askok desegiñak dauzkatela oraiñ baño lenagotik. Pensatu ote due ondo beñere euskera aiñ guchi estimatzen duenak, ¿zeñ ondoren tristiak eta negargarriyak etorriko lirakian euskal-erriarentzat euskera galtzera ezkerok? Sinistu ezazue euskera galtzera ezkerok, euskaldunak ditugun gauz on guztiyak galduko giñuzkela, Erlijiyua bera galtzera etorriko giñakela. Zergatik izkuntza eta Erlijiyua dira bi gauza erri baten edo Probintziya baten izate guztiya egiten dutenak eta bera gatik euskaldun onak lenago ill bear du bere izkuntzari ta erlijiyuari galtzen utzi baño. Esnatuko al gera bada noiz edo noiz, eta ez algera beti egongo lo, ezer egiñ gabe euskeraren alde. Argatik Diputadu jaunen egiñkizuna, Diputadubak bezela, Probintziyaren onari begiratzia dan ezkerok, nik erregutzen diet arren ere, aldituen neurririk egokiyenak euskerak iraun dezan, beñere ez galtzeko moduban. Badakit ez daudela aazturik eta Festa oek berak dira pruebarik onenak, baña nola beti falta egiten duen gauza beñere ez dagon sobra, argatik nere erreguba. Ta oraiñ biur gaitezen nere sermoyaren gai lenendikora, eta barka zaidazue beragandik zerbait apartatu banaiz, Ikusi degu zertarako serbituko digun, lenengo zeruetako erreinuba eta bere justiziya billatziak.

Orain ikusi bear degu ez degula bildurtu eta atzeratu bear Jaunaren serbiziyan guchi geralako.

II

Mundu zabalari begiratu bat eman nai badiogu, ikusiko degu lau klasetako jendiak egiten duela gaurko munduba. Lenengo klasian arkitzen Jira, arako gizon gaizto Jainkuaren eta Kristoren kontrako gorrotoz eta arrabiyaz beterik daudenak deabruaren antzera. Jende bullosua, lotsarik gabia eta ezin geyagoraño arrua, korputz ta anima gaitz egitera emanak eta mundu guziya albalukete beren antzera gaiztotuko luketenak. Ez dira askoenak; baña bai ordia jende biurriya, eta guziz okerra aditu dezuen bezela. Bigarrenengo klasian arkitzen dira askoz geyago, ta oek dira atsegin mota guzien artian bizi nai luketenak, mundu onetan diran bitartian. Eman zaizkatzue oeri jan-eran ugariyak, apustubak, jokubak, periyak, erromeriyak, danzak, teatruak, zezenak, larga zayozue ibiltzen libertade osuan lujuriyako zelai guztietan, eta nai duen guztiya ikusi, aditu, irakurri, eta esaten, eta kontentu dira, naiz mundu guziya galdu dezatela lenbiziko klasekuak. Irugarren klasian arkitzen dira nik nola izendatu ere ez dakidan modukuak, bada dira gaur kolore bitez eta bigar beste batez jazten diranak, aia aguro eskubitik nola ezkerretik dabilzananak, kandela bat San Migeli eta onen azpikuari beste bat ipintzen dakiyanak; oek dira inorekin aserretu gabe bizi nai luketenak, erdiya Kristorentzat eta erdiya mundubarentzat diralarik, naiz ta onetarako belarrondoko portiz bat eman biar Jesu-Kristori. Laugarren klaserako gelditzen dira guchi, eta oek dira Jesu-Kristoren serbitzariyak, aintzakotzat mundu guziyaren aurrian agertzen lotsatzen ez diranak; guchi, baña jende bizkorra, pifia ta leyala, buruba chit gora duela Jesu-Kristoren bandera segitubaz, Eleizaren pozgarriya dana bere persekuziyuetan, baña denbora berean peligru aundiyan arkitzen dana; esan nai det, Jesu-Kristoren serbitzariyak eta bera gatik baita ere euskaldunak (zergatik neretzat euskaldun ona, eta Jainkuaren serbitzariya biyak bat diran) arkitzen dirala diot tentaziyo gogorrian, ez ote ditezgian atzeratu Jaunaren serbiziyan ikusirik guchi dirala, eta despreziatubak niundubaren aldetik. Bada guchi oek dira nik animatu eta konsolatu nai ditutenak arako Jesu-Kristok zuzentzen diezten itz ayekin: *Nolite timere pusillus grex quoniam complacuit dare vobis regnum. Artalde chikiya et bildurtu, zergatik Jaungoikuak zueri eman nai dizuen zeruetako erreinuba.*

Eta ala, ez bildurtu zuek ere euskaldunak guchi zeratelako, bada guchik geyago dezakete Jaungoikoarekin, mundu guziyak Jaungoiko gabe baño. Munduko gauzen berri ondo zekiyenak bezela ikusirik Salbadoreak gertatu baño askoz lenagotik, bere serbitzariari egingo zitzaizen gerra modu au, kontuban ipintzeko tentaziyo onen kontra, ara zer utzi zuen esana. Zabala da galmenera daraman bizia, eta asko dira bide onetan sartzen diranak. Eta kontrara: ¡O zer estuba dan bizitzara daraman bidia! eta guchi dira bide au arkitzen duenak. Eta ala Kristaubak bezela eraman bear degun bizitzari begiratzera ezker, askorekin izatia da guziz siñale charra, zergatik dan galmenera daraman bidiaren siñalia, eta kontrara guchirekin izatia, da siñale chit ona, zergatik dan betiko bizitzara daraman bidiaren siñalia; ta Jesu-Kristoren denboratik oraindaño Jainkua benetan serbitu nai izan duenak etsirik egon biar izan due guchi izango ziranez. Noek bere familiyarekin serbitu nai izan zuen Jaungoikua, eta aiñ bakarrik ikusi zan non lurraren gañian etzuen arkitu bat bera ere, Dilubiyoko denboran merezi izan zuanik kuchan libratzia. Abraham-ek serbitu nai izan zuan Jaungoikua, baño onetarako irten biar izan zuan bere eche eta erritik, eta ibilli arrotz bat bezela batetik bestera, paraje jakiñik gabe.

Lot-ek bere emazte eta alaba biyekin Jaungoikua serbitu nai izan zuen eta Sodomako erriyan berak bakarrik izan ziran ango pekatu ichusietan parterik artu etzuenik. Eta onela beste asko. Eta ez da zer arritu, zergatik berdin gertatu zan Jesu-Kristorekin. Mundu onetan bizi izan zan bitarlian, ibilli zan erriz erri bere legia predikatzen, eta on egiñaz pasa izan zan toki guzietan, bada etzioten aurkeztu eri, edo gaño bat sendatu etzuenik; eta zenbat eri mota etziozkaten eraman bere aurrrera. Ichubak, gorrak, mutubak, errenak, eibarriyak, legenardunak, kallentura biziyan zeudenak, gaizkindunak, edo demonioz josiya, eta ¿nik dakit zenbat geyago? Bada danak sendatu izan zituan, bai ta beñ baño geyagotan illak piztu ere. Gañera, eman zitzen ejenplorik onenak ta erakutsi dotriñarik ederrena, alako moduan non Juduak berak biartu zituan konfesatzera, egundaño gizonik etzala izan aiñ ondo mintzatu: *Numquam sic iocutus est homo.*

Argatik esan zezakean mundu guziyak beraren ondoren joan bear zuela, eta jarri bere esanera. Baña ala gertatu zan? Berak bildu zituen amabi arrantzale tristek, eta beste oen antzeko ikasle guchi batzuek biazik etzioten segitu. Gañerako jendiak beren inguruban ezin ikusi izaten zuen. Askok gorrotatzen zuen, iltzia deseatubaz; beste askok egiten

ziyoen ez ezagutu papera; batzuek mundubaren esamesak gatik izan oi ziran bildur berarekin topatzeko, eta azkenik berari nai ziotenak ere egunez ez atrebiturik bera zeguan parajera joaten, joan oi zitzaizkan gabaz. Orañ ordia, Jesusen esana da, serbitzariya ez dala nagusiya baño geyago. Ni persegitzen banaute, zuek ere persegituko zaituzte, esaten zien. Ta Jesusen itzak etzituen aiziak eraman; Berari eman zioen tratu gaizto ura bera eman zitzaion Maria Santisimari, Apostoluari, Martiriyari, eta denbora guzietako Santubari; danak, granorik apartatu gabe izan dira despreziatubak, persegitubak mundubaren aldetik, modu batera edo bestera. Onek serbitu bear die benetalto Kristaubari eta eukaldunari konsuelo aunditzat, zergatik munduba beti izan dan Kristoren etsaya. Aspaldi utzi zuan esana Espiritu Santubak San Pabloren aoz: Bizitza ona, bizitza santuba Jesu-Kristorekin eraman nai duenak, persegitubak izango dirala: *Qui pie volunt vivere in Christo Jesu, persecutionem patientur.*

Guchi izatiak ez du ainbeste bat inporta; inporta duana da, guchi oyeek onak eta bildurgabiak izatia. Guchi izan ziran asko Gedeonnek, Madianitak benzutu eta desegiteko, guchi izan ziran bezela asko Legazpi-rekin, Españiako Erregerentzat Pillipiñak irabazteko; Okendo-rekin Holandesak garaitzeko; eta Elkano-rekin mundubari iru urte ta illabetian buelta osua emateko. Baña animo eta balore andiko gizonak ziran ayek, esango dirazue. Alase da: zergatik animo ta baloria euskaldunakin berakin, jayotzen diran gauzak dira, Aita Larra mendik dionez.

Baña ori guztiya etzuen asko izango, egiñ zituzten azaña arrigariyak egiteko, ez baziran izan denbora berian lenengo zeruetako erreinuba billatzen jakin zutenak, eta beren arretarik andiena ez bazan izan Kurutzia ipintia allegatzen ziran paraje guzietan. Onegatik izan zuen zerutik ainbeste laguntza, zergatik ziran ez bakarrik gizon baloretzuak, baita ere Erljiyo andikuak. Bestela, esan egidazue: ¿Zeñek fundatu zuan Lasarteko Monjaren konbentuba? ¿zeñek izkribitu zuen euskeraz Santa Brijidaren bizitza miragarriya, eta izan ziran Santa orren izeneko Erljiyuaren origillerik andiyenak? Okendotarrak. ¿Zeñek eman ziozten Erlji o orri berari, ez bakarrik beren estudiyuaren frutubak, baita ere matrimonyuarenak, au da bost alabataraño? Okendotarrak.

Eta Legazpi-ren asmua Pillipiñak irabazi zitunian Españiko Erregerentzat, etzan izan gauza guziryak egitia Jaungoikuaren gloriya, eta serbiziyorako konbeni zan bezela? ¿Etzan izan Legazpi, Zebú zeritzan

Isla, edo Ugartian arkitu zuen Jesús aurraren imajiñari, Kapilla eder bat egin ziona? Etzan izan Legazpi Manilako uriya fundatu bezin laster, Eleiza bat Jaunari alcha ziona, eta baita ere konbentu bat Erlijiosuari? Eta Elkano, ¿nork eztaki zeñ debotua, eta eleizkorra izan zan? mundubari buelta osua eman da Españiara atzera bueltatu zanian, ¿badakizue ze egiñ zuan Sebillan? Bera, eta bere lagunak joan ziran Eleizara prozesiyuan, ondo aitu, prozesiyuan, oñ utsik, eta bakoitzak bere kandela eskuban zuala, Jaunari eskerrak ematera ainbeste arrisku, eta peligru andiyetatik libratu zitualako beren biaje luzian. ¡O zer denborak ayek, eta zer denborak orainguak! ¡Zeñ desberdiñak! Okendo, Legazpi, Elkano, Churruka, Idiakez, Irala, ta beste asko, ¡ayek, ayek ziran gizonak! Eta danak Españiaren ifar-aldeko Gipuzkua deritzan choko onetan jayuak; gizon prestu eta kopeta garbikuak, gizon piadosuak, balorez eta onorez besterik ez bezelakuak, ta guchi izatiak beñere bildurto etzituanak.

Eta ¿zer esango dizuet gure Ignazio gatik? Munduba bera dan baño andiyagoko biyotza zuan gizona zala, esan zuan Aita Santu Gregorio XIII garrenak: Animum gerens mundo majorem. Eta onekin guziya esana gelditzen da; eta neri ez dagokit ere geyago esaterik Esan dezatela Indiyak, eta Amerikak, esan dezatela Alemaniak, Poloniak, Inglaterrak, Moskobiak..... esan dezatela mundubaren lau partiak, bada Ignaziok bere seme Miñioneruen bitartez, konbertitu izan ditu jendiak eguzkiyak berotzen dituen paraje guztietan; zergatik Ignazio zan gizon bat, mundu guziya zeru aldera zuzendu nai zuena, eta dudarik gabe zuzenduko zuana, bere eta Jaungoikuaren etsayak eragotzi ez baliote.

Orañ pensatuko dezue benturaz akabatu zaizkidala zuek animatzeko motibo guztiiyak; baña oraindik badet beste bat Kristau egiyazkuentzat eragilleena izan bear duena. ¿Badakizue zer motibo dan ori? Chit guchi dirala ikuste ori berori Jesu-Kristori segitzen dienak, eta asko, guziz asko berari oraiñdaño egin etzayon moduko gerra egiren dienak. Zergatik, iriki itzatzue ondo nai badezue zuen belarriyak, ta ipiñiko zaituzte gortzeko zoriyan alderdi guzietan aditzen diran blasfemiiyak, aifñ itsusiiyak eta nazkagarriyak askotan, non izu-ikaraz zañetako odola jelaturik utzi deyoken bati; bada nik ez dakit blasfematzeko tokiya dan infernuban bertan, aditzen ote diran ikaragarriyagorik, emen lurrian gizonari aditzen zaizkenak bario. Eta ni geyena penatzen nabena da, euskaldunak ere manchaturik ikustia biziyo orrekin.

Aditu izan det iñoiz, euskerak ez duela itzik blasfematzeko; nere

iritziyan, ori esan izan due norbaitzuek, sekula euskaldun bat blasfematzen aditu etzuelako, eta orregatik iduritu zitzaizelako nunbait, euskerak etzuela blasfemiyako itzik. Bada oraiñ ere zori gaiztuan blasfematzen badue euskaldunak ez beren izkuntzan, baizikan izkuntza arrotzian, erderaz beti edo geyenian blasfematzen dute, berak aditzera ematen dutela euskaldun blasfematzaillia ez litzakela ezagutu bear euskaldun-tzat. Eta nik esango nuke eze, arrika atera biar litzakiala Probinzi oetatik, ankezurrik geyago sartzen utzi gabe, alik eta oso emendatu arrian; aiñ itsusiya, beltza eta ikaragarriya da blasfemiyako pekatura, eta aiñ urruti ibilli bear due euskaldunak biziyo orretatik. ¿Bada-kizute zer esan izan zuen Ignazio Loyolakuak? Jaungoikuak bialdu izan balu infernura, pena geyago eman izango ziola ango blasfemiyak aditziak, infernuko tormentu guziyak padezitziak baño.

Zergatik Ignazio euskalduna zan, ta baita ondo euskalduna, Probinzi onetako semia, eta erri onetan bertan bere siaska izan zuana. Eta oraindik izango dira euskaldunak blasfematzen atrebituko diranak? Zergatik kopeta biatz bi zabal duanak, ez luke ezagutu bear zenbateraño injuriya, edo ofensa egiten zayon Jaunari blasfemiyarekin? ¿ez luke ill bear orrelako itzik aotik atera baño len? Bada alaz guztiyaz ere gaur blasfematzen da Jesu-Kristeren Korputz, eta Odolaz, eta bere Persona Jaugoikozkoaz; blasfematzen da Ostiya Santubaz; blasfematzen da Maria Santisimaz, eta zeruko Santu, eta Santa guztiyaz granori ere pakian utzi gabe; despreziatzen dira Elizako legiak eta Ministruak batere erreparo gabe; Sakramentubaz egiten da burla ta parra; itz batian egiten zaye gerra Jesu-Kristoren odolarekin erositako animari milla modutara, ez bakarrik pekatura eramateko, bai ta ere Jesu-Kristoz ernegazeko; au da, Jesu-Kristo zokoratu, eta bere fedia ukatzeko.

Gaur ez dira guchiyagorekin kontentatzen gizon deabruzko oyek. Beren asmua da, Jesu—Kistori eta bere erlijiyuari desagertu eragitia mundu onetatik albalezakete; eta onetarako berristatu due, igaroko Eunkidan izan ziran gizonik pikaruaren deadarra, esanaz: Beera, beera infamia, au da, beera Jesu Kristo; bada guk ez degu nai gurekin bizi dediñ geyago, deabruba baizik. Eta ez pensatu gertatu ez leiken gauzen bat esan dizutedala, zergatik oraindik denbora asko ez dala, Balenziako parrokia batian eta Jauna bera agiriyan zeguala, izandu zan deadar sakrilego ori egin zuana: Beera, beera Jesús. Jaunari graziyak paraje oetan oraindik ez ta aditu orrelako gauzarik; baño ernai bizi izan bear da, zergatik oraiñ burni-bide, telegrafo, eta beste onelako gauzen

medioz, chimista bat bezin aguro datoz mundubaren ertz batetik bestera edozeñ gauza, batez ere dotriña gañtuak. Orregatik gaur ez da asko lenagoko Kristaubak bezela bizi izatia. Alako denboretara etorri gera, non batek izan bear duan apostata, au da, Jesús ukatuko du-na, edo izan bear du Kristau oso irmea, Kristorekin eta Kristoren alde gogor peliatuko duena. Eta lan bide onetan euskaldunak ez degu izan biar aurren aurrenekuak? Ea bada, ta ez bildurtu guchi zerratelako; gaur aĩn aztuba ikusten dan ezkeru gure Salbatzalle adorgarriya, orregatik beragatik nai bear degu guk agertu bere adiskide leyalak bezela, mundu guziyaren aurrian.

Adiskide onak, adiskide piñak denbora gaistuetan ezagutzen dira onduena, ta Jesu-Kristorentzat denbora oek dira, ezin da gañtoaguak, eta ala amoriyuaren piñkarik badegu biyotzian Jesu-Kristorentzat, oraiñ da sasoya erakusteko, oraiñ da denbora agertzeko geran edo ez bere adiskide egiazkuak, zergatik, desgraziyan batez ere, nai oi dira, eta espero oi dira benetako adiskidiaren laguntzak. ¿Zer? ¿Ta bada zuen artian Jesusen adiskidia izan nai ez duanik? ¿Jesús ukatu nai duanik? Iduritzen zait itz oek aditziak bakarrik ikaratzen zaituztela, eta ex arrazoi guchirekin; bada Jesús etzan portatu izan zuekin orrela. Zuek oso galdurik zeundeten denboran, betiko eriyotza ta infernuba besterik eziñ espero zezaketen denboran, Jesús bakarrik izantzuan zuezaz errukitu zana, zuen gaitza erremediatu zezakeana, eta erremediatu zuana, egiñaz orretarako egiñ zezakean sakrifiziyorik aundi-yena, obligaziyorik batere etzuelarik, eta zuen ganako amoriyo utsutsez; bada etorri zan zerutik lurrera, egin zan gizon, eta ilzan gurutze lotsagarri batian. ¿Badezake agertu iñork karidade aundi-yagorik, bere etsayagatik biziya ematen duanak bailo? Oraiñ bada, mundubak ainbeste persegitzen duanian Jesús, aldebateratu nai dezue, eta aldegiñ beregandik ezagutzen ez bazendue bezela? Baña, ¿zer billaukeriya ez litzake izango ori?

Gizonak bagera, eta batez ere, Kristaubak eta Kristau euskaldunak bagera, ez aztu ezen, ez degu kontentatu bear Jesusi segitu eta bere alde egotiarekiñ, sayatu bear gera alditugun guztiyak beretzat irabazten. Masoyak, eta beren adiskidiak ainbeste alegiña egiren ari diranian, Jesusen kontra jendia bildutzen, guk egon biar degu besuak tolesturik? Ez milla bider. Zañetan odola degun bitartian, biyotzian kolperik chikiena senti degun bitartian, anima korputzian degun bitartian izan bear degu gure Salbadore Jesu-Kristorenak, defenditu bear degu

Jesusen bandera, naiz orregatikan mundu guztiyak despreziatu eta persegitu gaitzala; naiz infernu guztiya marrubaz gelditu dedilla. Bada kon solatu bear degu pensatubaz eze, onela konfesatuko degula onduena Jesu-Kristo, zeñaren esana dan, bera gizonen aurrian konfesatzen duana, berak ere konfesatuko duala Aita zerukuaren aurrian; eta argatik akabatu nai dizuet sermoya asierako itzakin berakin: *Quærite ergo primum regnum Dei, et justitiam ejus; hæc omnia adjicientur vobis.* Billatu itzatzue lenengo zeruetako erreinuba eta bere justiziya, eta gañerako biar dituzuen gauza guztiyak emango zaitzue; eta billatu itzatzue guchi zeratelako bildur gabe, zergatik orobat Jaunaren esana da: *Nolite timere pusillus grex quoniam complacuit dare vobis regnum;* au da, artalde chikiya, ez bildurtu, zergatik zueri eman nai dizuen Jaunak zeruetako erreinuba, zeña dan nik biyotzaren erdi erditik desiatzen dizutedana. Amen.

A. M. D. G.

